

«Hitz handiak dirudite, baina uste dut Teknopolisek mundua hobea egin duela urte hauetan»

Euskal Telebistako **T e k n o p o l i s** saioak 25 urte bete ditu. 1999ko otsailean emititu zen lehen aldiz, Pilar Kaltzada aurkezle zela, eta geroztik mende laurden egin du ETBko programazioan etenik gabe. Iñaki Leturiarekin (Ormaiztegi, 1970), azken urteotako aurkezlearekin, izan gara ibilbide hori aztertzen, nahiz eta talde osoaren lana nabarmendu nahi izan duen.

25 urteko ibilbidea osatzea ez da erraza bizitzako edozein arlotan, are gutxiago telebista munduan. Nola ari zarete bizitzen urteurren hau?

Nik uste ospatu beharreko zerbait dela. 25 urte asko dira, telebistan are gehiago. Espezie arraroa garena esan liteke, ez direlako asko telebista munduan 25 urte betetzen dituzten proiektuak. Sekretua zein den galdetzen didatenean, beti nabarmentzen dut ez gaudela bakarrik. Atzean jende asko dugu, babesleak, Teknopolisen familia deitzen diogun hori, 25 urte hauetan bidelagun izan ditugunak. Lan taldea ere bai. Ni agertzen naiz, niri tokatzen zait aurpegia ematea telebistan, baina jende askoren lanak egiten du posible astero-astero Teknopolis. Horren guztiaren emaitza da 25. urteurren hau.

Urteurrenak, alde batetik, atzera begiratu eta balantzea egiteko balio du. Zer nabarmenduko zenuke?

Gu duela 25 urte hasi zirenen oinordekoak gara. Ni hasiera hartan ez nengoen. Zehazki 14 urte daramatzat Teknopolisen lanean, ia 10 aurkezle lanetan, baina aspalditik datorren lan

bat da. Badirudi zientzia eta telebista ez direla ongi ezkon-tzen, baina guk frogatu dugu posible dela. Gustatzen zait aipatzea Elhuyarren leloa zein den, “ezagutuz aldatzea”. Eta gu ere erabat lerratzen gara lelo horrekin. Teknopolisek urte hauetan egin duena horixe da, jendeari ezagutza erremintak eman gizarte kritiko bat sortzeko. Baina lan horretan ez dugu ahaztu behar jendea entretenu ere egin behar dela. Nagore Rementeriak aurkeztu batean esaten zuen ikas-teak, ezagutza eskuratzeak, plazera ematen duela. Frogatuta dago endorfinak eta horrelako hormonak jariatzen ditugula. 25 urte hauetan jendeari plazer hori eman diogu. Beti esaten dut: Teknopolis ikusten duzun bakoitzean, zerbait ikasten duzu. Ez da gutxi.

Baina aurrera begira ere jarri nahi izan duzue urteurren honetan, eta Europako Espazio Agentzian izan zarete.

Aurrez ere urteurren batzuk ospatu izan ditugu, eta ohitura atzera begiratzea izaten zen, irudi zaharrak atera eta abar. Oraingoan nahiago izan dugu aurrera begiratu. Zer nahi dugu? Zertaz hitz egin nahi dugu hemendik aurrera? Eta saio berezia horren inguruan egin genuen. Espazioan omen dago gizakiaren etorkizuna, eta ESAn, Frankfurtetik 30 kilometrorra dagoen kontrol zentroan, izan ginen, bertan lan egiten duten euskal zientzialarien eskutik. Espaziora joango al gara? Espazioan biziko al gara? Jupiter aldera inguratuko al gara? Horiek izan dira apur bat galderak. Baina badaukat gogoa apur bat normaltasunera itzuli eta gure lanarekin ja-

rraitzeko. Betiko helburuarekin, jendeari ezagutza eskaini, dibulgazioa deitzen den hori egin. Ikusiko da noiz arte.

Gaur egun natural ikusten dugu zientziari buruzko saio bat telebistan, baina entzun dizuet orain dela 25 urte ideia nahiko berritzailea izan zela.

Ni ez nengoen hemen garai hartan, baina hala gogoratzen dute, bai. Berritzailea, eta une hartan erokeria puntu bat ere izan zezakeena. Beñar Kortabarria eta Alfontso Mujika joan ziren ETBra proposamena egitera, eta esan ohi dutenez, ideia batekin ez, bost ideiarekin joan omen ziren badaezpada. Baiezkoa eman omen zieten, baina argi utziz babesleak behar zituztela saioa aurrera ateratzeko. Finantzaketa, alegia. Horregatik, hasiera ekonomikoki zaila izan zela aipatzen dute. Baina saioak bere bidea egin zuen, eta hortxe jarraitzen dugu, segur aski atzean duen babes horrek laguntzen duelako eta behar bati erantzuten diogulako.

Bidezkoa dirudi telebista publikoan zientziari eta zientzialariei lekua eskaintzea...

Ordurako Elhuyarrek bere aldikaria argitaratzen zuen, baina telebista saio bat egitea erronka bat zen. Telebista egiten eta zientzia gaiak telebistan lantzen ere ikasi beharra zegoen, eta alde horretatik lehen urrats haiek eman zituztenak bidegileak, aitzindariak izan zirela esan daiteke.

«Pilula» motzen garaian bizi garena dirudi: TikTok, sareak... Gai konplexuak modu sakonean lantzea gero eta zailagoa da?

IÑAKI LETURIA

TEKNOPOLIS SAIOKO AURKEZLEA

Elhuyarrek eta Euskal Telebistak ekoizten duten Teknopolis saioak 25 urte bete ditu.

Iñaki Leturia aurkezlearekin izan gara mende laurdeneko ibilbidea errepasatzeko.

Gureak “pilula” potoloak dira, lehen hala ziren eta orain ere bai. Tarteka gure buruari galdetzen diogu: “Zer egin behar dugu, guk ere horrelako pilula txikiak egiten hasi?” Baina horrek ez dizu aukera ematen gai konplexuak sakontasunez lantzeko. Noski, egin dezakezu aurrerapen bat, *promo* bat... baina gai bat benetan sakontasun apur batekin lantzeko denbora bat behar duzu.

Esango nuke luzera jendeak sinesgarritasun hori eskertzen duela. Aipatu izan duzue pandemia garaian jendeak zuengana jotzen zuela.

Guretzat gakoa izan zen, eta nolabait baieztatu zigun Teknopolis sortu zenetik izan duen helburu horrek eta egin duen lan horrek zentzu bat duela. Beti izan dugu funtzio bat betetzearen sentipena, baina orduan oso agerian gelditu zen. Jendea etortzen zitzaizun galdezka, galduta sentitzen zen jende hori erantzun bila inguratzen zen. Ana Galarragak egiten zuen “Koronabirusaren gakoak” atala, adibidez, eta sekulako arrakasta izan zuen. Guk ez genuen arrakasta bila egiten, noski, baina konturatzen zinen bazegoela jakin-min bat, egarri bat, eta guk funtzio hori betetzen genuela. Gerora ere lanean jarraitu dugu, baina une puntual horretan oso nabarmena izan zen.

Egindako lanaren beste errekonozimendu mota bat jasotako sariena da. Zer garrantzi ematen diozu?

Sariak gustura jasotzen dira beti, sekulako poza ematen dute, eta bada beste modu bat lanean ongi ari garela baieztatzeko. Hala ere, anekdota modura, orain dela hiruzpalau urte Leioako campusean gizon



Andoni CANELLADA | FOKU - ELHUYAR

«Beñar Kortabarria eta Alfontso Mujika joan ziren ETBra proposamena egitera, eta esan ohi dutenez, ideia batekin ez, bost ideiarekin joan omen ziren badaezpada»



bat hurbildu zitzaidan, adinagatik ez dakit irakaslea izango zen edo gurasoren bat. Esan edo ez zalantzan egon zela, baina esatea erabaki zuela. Oso ongi ari ginela, beharrezkoak ginela eta horrela jarraitzeko. Eta horrek ere ilusioa egiten du. Askotan aipatzen da publikoa, baina ez diogu aurpegia jartzen, eta jende horren aitortza ere garrantzitsua da. Sariak suposatzen duten aitortza profesionala eta kaleko aitortza, biak dira inportanteak.

Hau dena hasieratik euskaraz, Elhuyarrek bere sorreratik duen helburuarekin bat.

Hor ere eboluzio bat egon da. Hasi ginenean ez dut esango antinatural, baina egia da kostatzen zela bere arloaz euskaraz natural hitz egingo zuten

zientzialariak aurkitzea. Orain errazagoa da, baina zenbait arlotan oraindik ere kostatzen da, kanpoko erakundeak tartean direnean-eta batez ere. Datorren astean aireportura joan behar dugu, adibidez, eta kostatzen da. Bertako erakundeekin lan egitean errazagoa izaten da. Guk argi dauzkagu gure lehentasunak: euskaraz aritu behar dugu, genero ikuspegiarekin... Baditugu mugarri batzuk hasieratik eduki ditugunak. Generoarena, agian, beranduxeago landu dugu benetan, orain dela 25 urte ez zegoen horren argi mahai gainean. Baina une batean betaurreko moreak jantzi genituen. Zenbaketak egiten hasi ginen, zenbat gizonezko eta zenbat emakumezko agertzen ziren saioan adibidez, eta kon-

turatu ginen betaurreko horiek behar-beharrezkoak zirela eta aldatu beharra zegoela. Eta saiatzen gara beti alerta egoten, bai generoari dagokionez bai euskararen arloan. Eta gero, zalantzak sortzen dira. Gai baten inguruan aditu bakararra badaukagu eta euskaraz ez badu hitz egiten, zer egin? Gure lehentasuna izaten da euskara entzun dadila. Gaztelaniaz esandakoak bikoiztu egiten ditugu ETB1en, eta euskarazkoak gaztelaniara itzulita azpigitu-luekin jartzen ditugu ETB2n.

Aipatu dugu lantzen dituzuen gai asko konplexuak direla. Nolakoa izaten da aukeraketa prozesu hori? Kazetaritza ikuspegia gailentzen da edo zientzialarien iritzia ere kontuan hartzen duzue?



Une honetan Nagore Rementeria da zuzendaria, baina gaiak denon artean aukeratzeko ditugu. Eta ez nuke esango kazetaritza-ikuspuntua edo zientzia-ikuspuntua den, ez nuke banaketa hori egingo, esango nuke jakin-min ikuspuntua dela gailentzen dena. Taldeko bakoitzak bere joera dauka. Bati gehiago interesatuko zaizkio naturarekin harrereana duten kontuak, Nagoreri gehiago agian zientzia akademikoarekin lotura dutenak... Fisika kuantikoaren gaia, adibidez, Nagorek proposatu zuen. Nik nire zalantzak nituen, baina lankide batek oso ongi landu zuen gaia eta eduki geratu zen. Azken batean, sekretua da ongi dokumentatzea, adituei galdetzea, kontrastea... Nagorek esan izan du kazetaritzak eta zientziak badituztela hainbat antzekotasun. Kontrastea, adibidez: zer-

bait egia ala gezurra den argitzeko adituei galdetzea. Apaingarri batzuk agian bai, baina esaten denak egia izan behar du. Testua idatzi ostean zalan-tzaren bat izanez gero, adituei errepasatzeko eskatu, adibidez. Eta aukeraketan usaimena aipatzen dugu batzuetan, "niri gustatzen bazait, jendeari ere gustatuko zaio seguruenik". Badaude gai batzuk jendartean dabiltzanak eta landu behar dituzunak, nahiz eta agian ez izan zure gustukoenak. Pandemian argi zegoen, edo gaur egun teoria kuantikoa, adimen artifiziala... Lehenik guk ulertu eta gero jendeari eskaini mastekatuta.

Eta nola bilatu oreka azalpen zientifiko konplexua duten errealitateak jendeari ulergarri adierazteko?

Ba hortxe dago magia. Batzuetan lortzen dugu: "Nik uler-

«Beti izan dugu funtzio bat betetzearen sentipena, baina orduan [pandemian] oso agerian gelditu zen. Jendea etortzen zitzaizun galdezka»

tzea lortu dut eta orain irudi eta soinu bidez jendeak ulertzeko moduan azalduko dut". Dokumentazio asko, irakurri... Nahi baino denbora gutxiagorekin beti, baina gai horretaz "enpatatu", esan ohi den bezala. Kontrastatu, zeren agian uste duzu zerbait badakizula, baina agian ez da horrela. Gehienak kazetariak gara, baina zientzialariak ere baditugu gure artean. Nagore kimikaria da, eta horrek ematen dio beste ikuspegi bat. Garai batean zientzia mundutik jende gehiago iristen zen hona, eta une batean Teknopolisen hiru kimikari izan genituen. Eta bestela hemen daukagu Willy (Guillermo Roa kimikaria eta dibulgatzailea, Euskadi Irratiko Norteko Ferrokarrila saioaren arduraduna), edozer galdetzeko. Erlatibitatearen Teoria azaltzeko eskatu eta modu ulergarrian

espikatzeko gaitasuna du. Hori da dibulgatzaile onaren ezaugarria. Eta, era berean, informazioa zehatza izatea. Teoria kuantikoari buruzko datuak ez badira zehatzak, ez gara gure lana ongi egiten ari. Gu itzultzaileak gara, zientzia munduaren eta jende arruntaren arteko itzultzaileak. Batzuetan komentatzen digute halako departamentukoak pozik geratu direla gure lanarekin, baina gure benetako ardurari jendea gustatzea da.

Zentzu horretan, saiatzen zarete baliabide desberdinak erabiltzen. Nagore hegazkin batetik jauzi egiten ikusi genuen, Behobia-Donostian parte hartu zenuten...

Badago joera zientzia eta entretenimendua bi arlo desberdin direla pentsatzekoa, ez direla uztargarriak. Ba ez, jendeak gustura ikusiko duen zerbait egin daiteke. Lehen aipatu ditut hormonak. Niri gustatzen zait gauza berriak ikastea eta zerbait ikasteak sortzen didan sentsazioa. Eta bide horretan, gainera, ongi pasatzen baduzu, ba are eraginkorragoa izango da ikaske-ta. Dibertigarria izan dadila.

Zuen saiorako ezinbestekoa da euskal ikertzaileen komunitatea. 25 urte hauetan 3.000 ikertzaile inguru elkarriketatu dituzue. Kamera aurrera ekartzea kostatzen al da?

Denetarik dago, baina berriz genero ikuspegira itzuliko naiz. Konturatzen gara emakume askok oraindik badutela halako "sindrome del impostor" bat, edo "de la impostora" kasu honetan. Gero eta gutxiago gertatzen da zorionez, baina oraindik antzematen da gizonezkook askoz errazago egiten dugula urratsa jendau-

rrera eta emakumeei gehiago kostatzen zaiela, nahiz eta gizek adina edo gehiago jakin edozein gairi buruz. Eta beste joera bat: antzematen dut zientzialari bat zenbat eta maila altuagoan egon, zenbat eta jakintsuagoa izan, orduan eta gaitasun handiagoa izaten duela gauzak erraz eta modu ulergarrian azaltzeko. Gertatu izan zait *top* mailako zientzialari bat elkarrizketatzera joan eta ikaragarri gozatzea hari entzuten. Itzultzaile lan hori egiteko gaitasun ikaragarria izatea. Ikertzaileen komunitate hori oso garrantzitsua da guretzat, beraiek ere ezagutzen gaituzte, eta gu haien alde egiten saiatzen gara beti. Hurrengo erronka agian komunitate hori zabaltzea izango da. Ikertzaileen joan-etorri handia dago gure inguruan, eta horretan saiatu behar dugu.

Eta erakunde potenteak ere baditugu: DIPC, Nanogune, Aranzadi... Horiekin ere harreman estua izango duzue. Bai, noski. Gaiak bilatzera-koan, lantzerakoan... Ikusi besterik ez dago Aranzadik, adibidez, zenbat arlo desberdin lantzen dituen, sekulakoa da. Azkena Mondragon Unibertsitatean gertatu zitzaigun. Tentsio Ertaineko laborategia, adibidez. Oso teknikoa da, baina guk zerbait zabalagoa behar genuen, sare elektrikoek nola funtzionatzen duten ulertzeko. Eta aditu batek azaldu zigun energia berriztagarriek nola funtzionatzen duten eta abar. Hor gauza oso kurioso bat gertatzen da. Horrelako ikerketa-zentro edo unibertsitateekin lan egiterakoan, eta jendearen feedbacka jasotzen duzunean, kuadrillan aipatzen dizute adibidez: “Joe, eta hori hemen egiten da?”. Harrituta.

«Antzematen dut zientzialari bat zenbat eta maila altuagoan egon, zenbat eta jakintsuagoa izan, orduan eta gaitasun handiagoa izaten duela gauzak erraz eta modu ulergarrian azaltzeko»

Azkenean, hori ere bada gure lana. Igual ari dira zientzialari batzuk sekulako lana egiten, baina hori ez da jendearengana iristen. Batzuek barneratu ta daukate egiten dutenaren berri ematea ere garrantzitsua dela, beste batzuek ez hainbeste. Azkenean, jendeari ez badiozu azaltzen ikerketa lan horrek bere bizitza nola aldatu dezakeen, ez da behar bezala baloratuko. Horregatik, Europako proiektuetan-eta eskakizunetako bat dibulgazio lana egitearena izaten da. Eta erakusten du gurea bezalako saioak beharrezkoak izango direla aurrerantzean ere.

Ikertzaileen ohiko kexa izaten da ikerkuntza lana ez dela behar beste baloratzen...

Inork ez daki zer den uhandre piriniotarra Iñaki Sanz-Azkuek azaltzen digun arte. Bere lana erakustea garrantzitsua da, eta guk ere horretan laguntzen dugu. Sare sozialak hor daude, “txiosfera” deitzen dugun hori, baina eremu horrek oraindik muga batzuk ditu eta uste dut telebistak baduela jende gehiagorengana iristeko ahalmena. Telebista ere asko ari da aldatzen, gu ere ari gara joera berri horietara moldatzen, baina uste dut oraindik ere telebista tradizionalak baduela jende gehiagorengana iristeko gaitasuna. Audientziak begiratzten dituzunean, milaka kontatzen dira telebistan, eta kopuru horietara iristea oso zaila da beste euskarrietan. Kantitatearen eta kalitatearen arteko

eztabaida beste kontu bat da, baina datuak hor daude.

Beraz, beste 25 urtez ez dakit, baina jarraitzeko gogotsu. Bai. Uste dut funtzio bat betetzen dugula, funtzio publiko bat. Galdera planteatzen dugu: “Teknopolis egongo ez balitz zer?” Ba uste dut galera handi samarra izango litzatekeela. Elhuyarrek orokorrean egin daitekeen gogoeta da. Hitz handiak dirudite, baina uste dut Teknopolisek mundua hobea egin duela urte hauetan. Ez da harrokeria kontua, baina lortzen badugu pertsona batek Teknopolis ikusita zerbait ikastea, gauza batzuk zalan-tzan jartzea, edo metodo zientifikoa aplikatzea, uste dut funtzio hori bete dugula.

